


Azkoitiko emakume eta gizonen arteko

I. Berdintasun plana

2011-2014





"Ez gara emakume jaio, emakume bihurtzen gara. Jatorri biologiko, fi siko edo ekonomikoak ez du gizartean dugun gizaki emearen irudia defititzen; zibilizazioak berak eraikitzen du arraren eta irendutako bitarteko produktu hori eta femininotzat kalifikatu du" Simone De Beauvoir

AURKIBIDEA

| | |
|--|-----|
| 0. Sarrera | 4 |
| 1. Berdintasun planen inguruko oinarritzko kontzeptuak | 6 |
| 2. Udalaren egin behar eta gaitasunak | 9 |
| 3. Planaren gestio sistema | 10 |
| 4. Azkoitiko emakume eta gizonen I. Planeko aktuazioak | 11 |
| 5. Eranskinak | 105 |

0. SARRERA

✍ Azken urteotan, hainbat lege eta arau juridiko onartu dira. Bai nazioarte mailan, europa mailan, estatu mailan, eta baita maila lokalean ere. Emakume eta gizonen berdintasun eskubidea errekonozitzeko helburuarekin garatu dira. Beraz ondorengo plana, onarpen instituzional eta hainbat lege ezberdinen babespean ezartzen da.

Ondoren genero politiken marko teoriko-legalaren azalpena egiten da:

✍ Apirilak 2ko 7/1985 eko Legea. Erregimen lokalaren oinarria arautzen duena. 2003-12-21 ean eguneratua.

✍ Otsailaren 18ko 4/2005 Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea.

✍ EAEko Emakume eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana.

✍ Martxoaren 22ko 4/2007 ko Lege Organikoa. Emakume eta Gizonen berdintasun eraginkorrerako Legea.

✍ Arlo lokaleko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Europako Eskutitza.

✍ EAEko Emakume eta Gizonen berdintasunerako V. Plana.

Azpimarratu beharrekoak dira, Azkoitiko I. Plana egiterakoan jorratutako bi erreferentzia saihestezinak: EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana. Bi erreferentzi horiek derrigorrezkoak dira gaur egun edozein plan lantzerakoan.

I. Plan hau, bereziki, Azkoitiko herrian berdintasuna ezartzeko balio duen tresna bat da. Tresna honen erabilera zihurtatzeko, herriko eta udaleko berezko ezaugarriak kontuan hartuta garatu da, helburu eta helmuga errealak markatu eta aldi berean neurgarriak eta kontestuari egokituak diren neurriak markatu direlarik.

Plana udal politikaren sektore guztiek zeharkakotasunez erabili beharko duten tresna bat izan behar du; maila honetan, beste arloetako programa eta planekin uztartzeko ahalegin berezia egin delarik.

Dokumentua ondoren azaltzen diren ataletan egituratu da:

- Berdintasun planen gaineko oinarrizko kontuak. Atal honetan berdintasunerako planen erabilgarritasunaren inguruko oinarrizko ideia batzuk azaltzen dira. Aldi berean, EAEko Berdintasun Legearen eta Berdintasun Planaren oinarrizko zenbait kontzeptu argitzen dira.
- **Udalaren eskumen eta funtzioak:** Atal honetan Berdintasun Legean deskribatzen diren eta udalei dagozkien eskumen eta funtzioak azaltzen dira.
- **Helburuak, estrategiak eta ekintzak:** Atal hau planaren muina da, non bete beharreko helburu, estrategia eta ekintzak definitzen diren. Aldi berean, ekintzen kronograma, aurrera eramateko arlo edo eragile arduradunak eta esleitutako aurrekontua adierazten dira.
- **Kudeaketa sistema.** Atal honetan planaren kudeaketarako erabiliko diren 4 ardatzak azalduko dira. Honek planaren jarraipen eta ebaluazioaz arduratuko dira.
- **Jarraipena eta ebaluaketa:** I. Berdintasun Plana urtero garatuko da Programa Operatiboetan, eta tresna baten bitartez ebaluatuko da.

Partehartzea: Azkoitiko herriaren ezaugarri eta egoerari egokitutako plan bat lortzeko, metodologia misto bat garatu da, non teknika kuantitatibo eta kualitatiboak erabili diren, eta udalaren eta udaleko hainbat eragileen parte hartzea ezin bestekoa izan den.

Lanerako plana honako estrukturaketan banatu da:

| | |
|----------|--|
| 1. FASEA | Talde sustatzailea osatu, lan tresnen diseinua eta planaren egitura zehaztu. |
| 2. FASEA | I. ziriborria egitea eta kontrastea (herritar + teknikariek). II. Ziriborria egitea eta kontrastea (talde sustatzailea+ teknikari+ politikariek). |
| 3. FASEA | III. Ziriborria egitea |
| 4. FASEA | III. Ziriborria Emakundera bidali eta hauen iradokizunak Planean txertatu. Audentzi publikoa |
| 5. FASEA | Azkoitiko I. Berdintasun Planaren onarpena. |
| 6. FASEA | |

I. BERDINTASUN PLANEN GAINeko OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Zer da berdintasun plan bat?

Berdintasun plan bat, ekintza batzuen bitartez gizartean eragina izateko eta gizarte horretan emakume eta gizonen artean berdintasun gehiago egon dadin, martxan jartzen den tresna bat da. Ez da asmo adierazpen bat eta ez da berdintasuna lortzeko konpondu beharreko arazo zerrenda bat. Baizik epe jakin batean, kasu honetan 4 urteko epearen barruan eta toki jakin batean, Azkoitia kasu honetan, gauzatu beharreko lan ildo eta egitura bat da.

Zertarako balio du Berdintasun plan batek?

Lana sistematizatu eta emaitzak optimizatzeko balio du. Ez dauka eragin berdina lotu gabeko ekintza sorta batek edo estrategia baten barruan burutzen direnak. Oro har, prozesuan ahalik eta eragile gehien haritzeko balio behar luke, Berdintasun Plan batek.

Nori zuzenduta dago?

Herritar guztiei, emakume nahiz gizonei, Udaleko arlo guztiei eta gizarte eragile guztiei. Esparru guztietatik egin daiteke lan berdintasunaren alde.

Zertan oinarritzen gara plana prestatzeko?

Herriko gizarte eragileek, elkarte, udal langile, politiko, teknikari... egindako ekarpenak hartzen ditugu oinarritzat. Euren bitartez identifikatzen ditugu, planean sartu beharreko ekintza esparruak eta berauek gauzatzeko izango ditugun baliabideak.

Bestalde baditugu 2 erreferentzia saihestezinak; EAEko Gizon-Emakumeen arteko Berdintasun Legea eta Gizon-Emakumeen arteko berdintasunerako EAEko V. Plana.

EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea

Legeak definitzen dituen kontzeptu nagusiak honakoak dira:

Berdintasun tratua: Sexuan oinarrituriko diskriminazio guztietaz arduratzen da, bai zuzenaz baita zeharkakoaz ere, edozein delarik ere bera erabiltzeko modua.

Aukera berdintasuna: Emakume eta gizonek aukera berdinak izatea eta eragin eta integrazio aukera berak izatea bermatzen du.

Ezberdintasuna eta aniztasuna errespetatzea: Behar diren bitartekariak martxan jartzea, berdintasunerako prozesuan emakume eta gizonen aniztasun eta existitzen diren ezberdintasunak (nahitaezko zikloak, aukera eta interesak, eta hala nola dibertsitate eta kolektibo bakoitzaren barnean ematen diren ezberdintasunak) kontuan hartzen ditu.

Genero ikuspegiaren integrazioa: Modu sistematiko batean, politika, ekintza eta aktuzioetan; gizon eta emakumeek egoera, kondizio, behar eta aukera ezberdinak dituztela txertatzean datza.

Ekintza positiboak: Biziazen edozein eremutan, sexuagatik ematen diren diskriminazio eta bazterketak deusezteko, martxan jartzen diren, berriazko eta aldi baterako neurriak dira.

Sexuaren araberako estereotipo eta rola deusezteak: Emakumeak arlo domestikoari eta pribatuari eta gizonak arlo publikoari ezartzen dieten estereotipo eta rola deusezteak, zeinak, errekonozimendu eta balore ekonomiko eta sozial ezberdinak ezartzen zaizkien. Gizonei ezartzen zaizkienei balore gehiago ematen zaie.

Errepresentazio orekatua: Zuzendaritza postu eta erabakiak hartzen diren eremuetan; gizon eta emakumeen presentzia orekatu egoteko neurri ezberdinak sustatzea.

Elkar lana eta koordinazioa: Departamendu, zerbitzu, erakunde eta elkarten elkar lana eta koordinazioa egitea, errekurtsoen erabilera razional eta eraginkorragok izateko.

EAEko gizon eta emakumeen V. Berdintasun Plana

Gaur egun Berdintasun Plan bat egiteko, beste erreferentzia nagusia EAEko emakume eta gizonen IV eta V. Berdintasun Plana da.

IV. plan hau, 4 ardatzen inguruan egituratzen da. Zeintzuk, berdintasun politikak lantzeko lehentasunak ezartzen dituzten; Mainstreaminga, Ahalduntzea eta emakumeen parte hartze soziopolitikoak, bateragarritasuna eta korrespontsabilitatea eta emakumeen aurkako biolentzia.

Gizon eta emakumeen Berdintasunerako EAEko IV. Planak, ardatzak eta departamenduak gurutzatzen ditu (departamendu hauek, berdintasuna lortzeko esku hartze funtzionalak dira). Honela departamendu bakoitzerako estrategiak definitzen joaten dira. Adb; Kultura eta Mainstreaming-a, kultura eta ahalduntzea, kultura eta bateragarritasuna, kultura eta biolentzia,...)

Ondoren planaren ardatz bakoitza deskribatzen da:

Mainstreaming-a

Genero ikuspegia departamendu eta aktuzio guztientzat zeharkakoa izatean datza. Departamendu guztiek berdintasuna, beraien helburuetako bat bezala onartu eta hartu behar dute. Baina, genero ikuspegia, herriko eramu eraginkorretan ezartzean datza ere bai., eremu sozial, eremu kultural, eremu ekonomiko...

Ahalduntzea

Pertsonak euren gaitasunak indartzen dituzten prozesu bat da; konfidantza, ikuspuntua, protagonismoa... zeinak, bizi dituzten egoerak obtzeko balio dien, prozesu hau aplikatuko zaien emakumeei.

Bateragarritasuna eta korrespontsabilitatea

Bizi pertsonala, familiarra eta profesionala, bateragarri izateko neurri bat da. Bereziki beraien menpe pertsonen zaintza duten pertsonen (menpekoak izan edo ez). Korrespontsabilitateari dagokionez, gizonen; emakumeek zaintzaren gainean duten respontsabilitatea beraien gain hartzean datza.

Emakumeen aurkako biolentzia

Sexu arrazoiengatik, emakumeen aurka ematen den edozein biolentziaz haritzen da. Eta berau deusezteko martxan jarri beharreko strategi eta neurriak zeintzuk diren ezartzen du.

Azkoitiko I. Berdintasun Planean, udaleko aktuzio departamendu eta goian deskribatu ditugun 4 ardatzak gurutzatu ditugu. (hezkuntza, gizarteratzea, lana, hirigintza, kultura eta osasuna), zeintzuk Emakume eta Gizonen IV. Berdintasun planean planteatzen diren.

| Udaleko departamenduak | EAEko IV. planean jorratutako arloak | Mainstreaminga | Ahalduntzea | Bateragarritasuna eta korresponentsabiltatea | Biolentzia |
|----------------------------------|--------------------------------------|----------------------------------|----------------------------|--|----------------------------|
| Idazkaritza | Zerbitzu orokorrak (ZO) | Z.O.M.1 Z.O.M.2 Z.O.M.3 | Z.O.A.1 | Z.O.B.1 | Z.O.BI.1 |
| Harrera bulegoa | | | | | |
| Kontuhartzaitletza | | | | | |
| Kultura, Kirola eta euskera | Kirola (KI) | K.M.1 K.M.2 K.M.3 K.M.4 | K.A.1 K.A.2 | K.B.1 | K.BI.1 |
| | Kultura (K) | KI.M.1 KI.M.2 KI.M.3 | KI.A.1 KI.A.2 | KI.B.1 | KI.BI.1 |
| | Gazteria (HE) | HE.M.1 HE.M.2 | HE.A.1 | HE.B.1 | HE.BI.1 |
| | Hezkuntza (HE) | | | | |
| Hirigintza, obrak eta zerbitzuak | Hirigintza eta ingurugiroa (H) | H.M.1 H.M.2 H.M.3 | H.A.1 H.A.2 | H.B.1 | H.BI.1 |
| Iraurgi Lantzen | Lana eta enplegua (L) | L.M.1 | L.A.1 L.A.2 | L.B.1 L.B.2 | L.BI.1 |
| Gizarte Zerbitzuak | Gizarteratzea | GZ.M.1 GZ.M.2 GZ.M.3 | GZ.A.1 GZ.A.2 GZ.A.3 | GZ.B.1 GZ.B.2 | GZ.BI.1 GZ.BI.2 |
| | Imigrazioa | B.M.1.1 B.M.1.2 B.M.1.3 | B.A.1 B.A.2 | B.B.1 B.B.2 | B.BI.1 B.BI.2 B.BI.3 |
| | Berdintasuna | B.M.2 | | | |
| | Osasuna | O.M.1 | O.A.1 | | O.BI.1 |

2. UDALAREN EGIN BEHAR ETA GAITASUNAK

Otsailak 18ko 4/2005 EAeko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legeak, Bere 7. artikuluan, lekuko administrazioari ondorengo funtzioak egokitzen dizkio:

- a))Genero ikuspuntua integratzeko, prozesu, programa eta egituren egokitzapena eta eginkizuna du.
- b) Ekintza positiboen aktuzio neurriak.
- c) Foru Aldundiei dagokien programazioa eta Gobernuaren planifikazio orokorraren kontestuko planifikazioa.
- d) Emakume eta gizonen ezberdintasunen gaineko ezagutza erreal bat izateko, beharrezko diren estatistika eguneratuen egokitze eta mantenimenduak burutzea. Eta berdintasuna bultzatzeko beharrezko neurriak martxan jartzea.
- e) Udal herri mailan emakume eta gizonen egoerari buruzko ikerketa eta azterketak garatzea.
- f) Emakume eta gizonen egoera ezberdinari buruzko sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea. Eta berdintasuna lortzeko martxan jarri beharrezko neurriei buruzko sentsibilizazio kanpainak garatzea.
- g) Herriko normatibari jarraipena egin eta emakume eta gizonen berdintasun printzipioa aplikatzeko adostasuna aurrera eramatea.
- h) Herriarentzako informazio eta orientazioa ematea, bereziki emakumeei, berdintasunen inguruko errekurtso eta programei buruz. Eta bazterketa anitza pairatzen duten emakumeen oinarrizko eskubide sozialak bermatzeko zerbitzu eta programei buruzko informazioa zabaltzea.
- i) Emakumeen oinarrizko eskubide sozialak bermatzeko zerbitzu eta programen aurkezpenak egin eta berauek aurrera eramatea.
- j) Bizi pertsonala, laborala eta familiarra bateragarriak izateko behar diren establezimendu, errekurtso eta zerbitzu soziokomunitarioak

martxan jartzea. (udal mailako izaera du).

- k) Entitate publiko nahiz pribatuak, parte hartze bideak, erlazioen ezarpena, bakoitzaren funtzio eta helburuen arabera elkar lana egitea, Udal Herri mailan, emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzeko.
- l) Sexu arrazoiengatik ematen diren diskriminazio eta bazterketa guztiak atzematea eta berauek deusezteko neurriak jartzea.
- m) Beste edozein funtzio, beti ere udalaren kompetentzien barruan sartzen bada.

3. PLANAREN GESTIO SISTEMA

I. Berdintasun Planaren martxan jartze egoki bat egiteko eta bere jarraipen eta ebaluaketa egiteko, 3 kudeaketa estruktura erabiliko dira::

- ✓ Talde motorra – Berdintasun Saila: Talde motorra, berdintasun zinegotzia eta berdintasun teknikaria. Azkoitiko berdintasun teknikaria gizarte langilea da eta jornada osoz kontratatuta dago gizarte langilearen eta berdintasun teknikariaren funtzioak betetzen ditu.
- ✓ Departamenduen arteko batzordea (Pertsonal tekniko eta politikoen osatuko dute)– Jarraipen eta koordinazio estruktura.
- ✓ Udaleko sail ezberdinetako pertsonal politiko eta teknikoek osatzen dute. Beraien lan eremu edo alorrean aurrera eramaten diren berdintasun politiken eta berauen gaineko erabakiak koordinatzeko funtzioa dute. Bide batez, bakoitzaren alorraren jarraipena eta ebaluaketa egitea ere dagokio. Gaur egun, batzorde honek zehazteko du bertan parte hartuko dutenen izendapena.

Herriaren parte hartze egitura: Orain arte ezarrita dauden parte hartze leku edo moduak (Kontseilu Sektoriala) planaren jarraipena, iritzi eta iradokizunak jasotzeko tresnak izango dira. Hala nola udaleko web orria, ongizate batzordea, eta aurreikusita dagoen berdintasun kontseilua.

Jarraipena eta ebaluaketa

Urtero Berdintasunerako I. Planean programa eragilea landuko da, zeinak, urte bakoitzean udaleko departamendu bakoitzak landu beharreko ekintzak ezartzen dituen. Urteko izaera duen programa operatibo hau udaleko departamendu eta sail bakoitzak landuko du, beti ere Berdintasun departamenduaren laguntzarekin. Programa operatibo hau, jarraipen fitxa batzuekin landuta joango da. Fitxa hauek ekintzen garapenerako arduradunek beteko dituzte. Berdintasun teknikariak bestalde estrategia eta helburuak ebaluatuko ditu, honela garatutako prozesuaren ikuspegi zabalago bat emango duelarik. Ebaluaketa fitxak anexoan gehitzen dira.

Urtero jasoko diren datuekin, azken urtean, azken ebaluaketa bat garatuko da, zeinak aurrez ezarritako helburuak lortzeko planaren egokitasuna aztertuko duen. Hala nola Azkoitiko emakume eta gizonen berdintasunerako ezarri beharreko aktuzio plan berriak ezarriko diren.

AURREKONTUA

2011erako planteatuta dagoen aurrekontua 28.500 eurokoa da eta urtero hobetuko da.

2011ko aurrekontua honela antolatzen da:

ACTIVIDADES PROMOCIÓN MUJER: 22.000,00€

CONSEJO MUNICIPAL IGUALDAD MUJERES Y HOMBRES: 2.000€

RECURSOS ACOGIDA MUJERES VÍCTIMAS DE MALTRATO DOMÉSTICO: 4.500,00

4. AZKOITIKO EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO I. BERDINTASUN PLANAREN AKZIOAK 2011-2014

UDALEKO ZERBITZU OROKORRAK: IDAZKARITZA, KONTUHARTZAILETZA ETA PERTSONALA

Sarrera

Indarguneak (Barne mailan):

- ✓ Azkoitiko udalean 52 pertsonak lan egiten dute, guzti hauen % 55,76 emakumeak dira eta % 44,23 gizonak.
- ✓ Funtzionarioak diren pertsonen artean % 55,76 emakumeak dira eta % 44,23 gizonak.
- ✓ Azkoitiko udalak bere sail guztien ekintzen urteko planifikazioa hobetzeko "barne kudeaketa batzordea" du.
- ✓ Udaletxeko langileei ikastaro zerrenda bat eskaintzen zaie.

Hobetzeko arloak (Barne mailan):

- ✓ Udalaren egituraren segregazio horizontala antzematen da.
- ✓ Udaletxeko plantillan dauden administrazio postuetan gizonen %4,34 betetzen dituzte.
- ✓ Udaletxean gizonen ardura postu gehiago betetzen dituzte (%62,5)
- ✓ Titulaziorik eskatzen ez diren eta plantillako maila baxuenei dagozkien postuetan gizonak soilik daude.
- ✓ Udalean lan egiten duten langileen artean emakumezkoek bateragarritasun neurrien erabilera handiagoa egiten dute.

Ardatzak eta helburuak

1. ARDATZA MAINSTREAMING-A

Helburu orokorra

ZO.M Pertsonal departamenduko, diagnosi, planifikazio, eskuhartze eta ebaluaketetan Genero ikuspegia txertatu.

Helburu operatiboak

- ZO.M.1 Pixkanaka departamendu guztietako ikerketa eta estatistikak genero ikuspegira egokitzea.
- ZO.M.2. Pertsonal tekniko eta politikoari formakuntzaren inguruko baliabideak ematea. Berdintasun gaietan trebatzea.
- ZO.M.3. Departamendu guztietatik, genero ikuspegi batetik eginiko ekintza, programa, ... ejekuzio eta planifikaziorako behar diren baliabideak martxan jartzea.

2. ARDATZA AHALDUNTZEA

Helburu orokorra

ZO.A. Emakumeek beraien posizio eta egoerak obetu ahal izateko administrazio barruko prozesuak indartu eta ugaritu.

Helburu operatiboa:

ZO.A.1. Administrazio barruko prozesua areagotu eta handitzea, emakumeek beraien egoera eta posizioak hobetzeko.

3. ARDATZA BATERAGARRITASUNA

Helburu orokorra

ZO.B. Emakume eta gizonen bateragarritasuna bultzatzekoi organizazio eta antolakuntzan aldaketak bultzatu, eta bizi pertsonal, familiar eta laboralaren bateragarritasunaren aldeko lanketa egin.

Helburu operatiboak

ZO.B.1. Bizi pertsonal, laboral eta familiarra bateratzeko, udaleko antolakuntzan aldaketak erraztuko dituzten tresnak martxan jarri eta erraztu.

4. ARDATZA BIOLENTZIA

Helburu Orokorra

ZO.BI. Udaleko berdintasun sailarekin elkar lana eginez, genero biolentzia pairatzen duten emakumeen arreta eta atentzian hobekuntzak egiteko akzioak burutzea.

Helburu operatiboak

. ZO.BI.1. Udaleko Berdintasun sailarekin elkar lanean aritzea, genero biolentzia pairatzen duten eta biktima diren emakumeen arreta hobetzeko.

| | | | | | |
|-----------------------|--|--|--|--|---------------------|
| Helburu operatiboa | ZERBITZU OROKORRAK MAINSTREAMING-A | | | | |
| ZO.M.1. | Pixkanaka departamendu guztietako ikerketa eta estatistikak genero ikuspegira egokitzea. | | | | |
| | AKZIOAK (EMAN BEHARREKO PAUSUAK) | | | | 2011 2012 2013 2014 |
| | ZO.M.1.1.Udaleko departamentu guztietan erabiltzen diren adierazle, inkesta eta informazio bilketetan (espedienteen kudeaketarako aplikatiboan, ...), sexu aldagaia ezartzeari buruzko lehen analisiak burutzea. | | | | |
| | ZO.M.1.2. Departamenduan erabiltzen diren informe, inkesta, espedientetan, etekin adierazleak, memoria etab etan sexu aldagaia pixkanaka ezartzen joatea. Horretarako sexua identifikatzen duen laukitxo fitxa eta aplikatiboetan sartuz. | | | | |
| | ZO.M.1.3.Departamenduak erabiltzen duen informazioaren trataera, bilketa eta difusioa egitea; genero interesak eta behar praktiko eta estrategikoak atzemateko. | | | | |
| | ZO.M.1.4.Pixkanaka departamenduarentzat interesgarriak izan daitezkeen aldagai eta indikadoreak identifikatzea (denboraren erabilera, familiaren ardurak, ...) l. planeko helburuak burutu ahal izateko. | | | | |
| | ZO.M.1.5.Aldagai hauek informazioa jasotzeko fitxetan txertatzen joatea. | | | | |
| ESPERO DIREN EMAITZAK | Departamenduan erabiltzen diren informazioa jasotzeko fitxetan, %60en sexu aldagaia txertatzea. Departamenduan egiten diren, informe, memoria eta ikerketeten %60an sexu aldagaia txertatzea. Departamenduak bere dokumentuak egiteko, proiektuak ebaluatzeko eta akzioak eta programak aurrera eramateko; Genero indikadoreen batera martxan jartzea. | | | | |
| ARDURADUNAK | Idazkaria eta kontuhartzailea | | | | |

| ZO.M.2 | Pertsonal tekniko eta politikoari formakuntzaren inguruko baliabideak ematea. Berdintasun gaietan trebatzea. | | | | |
|--------------------------|--|------|------|------|------|
| EKINTZAK | | | | | |
| (EMAN BEHARREKO PAUSOAK) | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| ZO.M.2.1: | Formazio hauetarako, edukin, metodologia, data eta ordu kopurua identifikatzea. | ■ | | | |
| ZO.M.2.2: | Berdintasun sailarekin elkar lanean, udaleko `pertsonal tekniko eta politikoari eskainiko zaion berdintasun gaien inguruko formazio plana disenatzea. Ordu-tegiak horretarako egokitzuz eta erabilitako denbora baloratuz. | | ■ | ■ | ■ |
| ZO.M.2.3: | Pertsona konkretu batzuentzat zuzenduriko formakuntza ekintzetan, gizon eta emakumeen parte hartzea ziurtatzea. | | ■ | ■ | ■ |
| ZO.M.2.4: | Pertsonal politikoa sentsibilizatu eta aipaturiko formakuntza inplementatzea. | | ■ | ■ | ■ |
| ZO.M.2.5: | Berdintasun sailarekin batera elkar lanean, udaleko pertsonal tekniko eta politikoekin buruturiko formakuntzen ebaluaketak egitea . | | ■ | ■ | ■ |
| ZO.M.2.6: | Etorkizunerako behar den formakuntza ezartzea. | | ■ | ■ | ■ |
| ESPERO DIREN EMAITZAK | Departamenduan genero ikuspegia nola ezartzeari buruzko formazio plana jasotzea. | | | | |
| ARDURADUNAK | Idazkaria eta kontuhartzailea | | | | |

ZO.M.3

Departamendu guztietatik, genero ikuspegi batetik eginiko ekintza, programa, ... ejekuzio eta planifikaziorako behar diren baliabideak martxan jartzea.

EKINTZAK

(EMAN BEHARREKO PAUSUAK)

2011 2012 2013 2014

ZO.M.3.1. Azkoitiko I Berdintasun plana garatu eta honek kontenplazten dituen ekintzak aurrera eramateko, Berdintasunaren sailak aurrekontu propio bat izaten jarraitzea.

ZO.M.3.2. Berdintasunaren arloan, Berdintasunaren planak proposatzen dituen helburu eta ekintzak aurrera eramanez izateko behar diren baliabide pertsonalaz ornitzea, bai udaleko langile zuzenekin edo azpikontratatuarekin (4/2005eko Legeak ezartzen duen moduan 11. artikulua).

ZO.M.3.3: Berdintasun Plana jendarteratzeko ekimenak egitea (liburuxka egin, kanpainaren bat, ...).

ZO.M.3.4: Plana martxan dagoen urteetan, aurrera eramanez behar diren ekintzak identifikatu eta gobernu batzordetik pasatzea, berauek onartzeko.

ZO.M.3.5: Ekintza hauentzako dituzten baliabideak identifikatu (baliabide ekonomikoak eta denbora dedikazioa).

ZO.M.3.6: Departamendu bakoitzetik pertsona bat izendatzea hizketakide gisara, berdintasun departamenduekin koordinazio bilera jarraiak izateko.

ZO.M.3.7: Departamenduan aurrera eramanez diren berdintasun neurriak betetzen direla ziurtatzeko aldizkako ebaluaketa eta jarraipenak burutu.

ZO.M.3.8: Ebaluaketa hauen harira, planaren inplementazio egoki bat egiteko neurri egokitzailak ezarri.

ZO.M.3.9: Genero ikuspegia ezartzeko, ebaluazio eta jarraipen ekintzak aurrera eramanez.

ZO.M.3.10: Diru laguntzak erregulatu dituzten araudiari dagokionez, eta kontratuen legislazioak hala onartzen duen lan postuetan, genero ikuspegia txertatu, eskaintza, proiektu edo diru laguntza eman nahi den ekintzetan.

ZO.M.1.3.11: Genero ikuspegia duten, praktika onen planifikazioa eta interbentzioa aztertu eta sistematizatu. (Adibidez: Aurrekontu publikoetan genero-ikuspegia barneratzeko esperientzia pilotu bat egitea. Udaleko langileen lanpostuak genero – ikuspegitik ebaluatzea; ...).

EKINTZAK

(EMAN BEHARREKO PAUSOAK)

2011 2012 2013 2014

ZO.M.3.12: Modu guztietako hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista garatu, entitate edo 3. pertsonen zuzenean edo beraien bitartez produzitzen dituzten dokumentu guztietan.

ZO.M.3.13: Udaleko oposaketetako gai-zerrendetan sistematikoki berdintasunaren Lege eta gaiaren inguruko ikasgaiak sartzea.

ZO.M.3.14: Ekintzak eta programak martxan jarri aurretik generoaren araberako aurre inpaktuaren ebaluazioa egitea (5/2007 EBAZPENA, otsailaren 14koa «genero eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzekoa» arabera).

ZO.M.3.15: Emakumeen beharrak eta interesak bizibilizatzen dituzten, informe, memoria, diagnosi, ... garapena bultzatzea (adb. Laneko arriskuen ikerketa edo laneko osasunaren azterketak).

ESPERO DIREN
EMAITZAK

Urteko plan operatiboak.
Plan operatibo hauen, memoria eta ebaluaketak.

ARDURADUNAK Idazkaria eta kontuhartzailea

Eraitzen adierazleak:

Berbegiraturiko eta bermoldatutako berdintasunerako ekintzak sartzeko departamenduko % aktuazio ildoak.

Sexu aldagaia kontuan hartuta, disenatu diren estatistika eta tresnen %-en garapena.

Departamenduko hizkuntza ez sexista erabiltzen duten dokumentuen % -ren garapena.

Berdintasunerako disenaturiko ekintzen eraitzen garapena (Aurrera eraman diren ekintzen %-a eta pertsona onuradunen kopuruen garapena).

Departamenduan formakuntza jaso duten pertsonen %-a eta pertsonako formakuntzarako erabili diren ordu kopuruaren garapena.

Prozesuko adierazleak:

Berdintasun departamenduarekin mantenduriko koordinazio bileren kopurua.

Planetik burutu eta bukatu diren akzioen kopurua.

Hasi gabeko ekintzen kopurua (Planteaturiko kronogramaren arabera).

Ekintza zuzentzaileen kopurua.

Prebentzio ekintzen zenbatekoa .

Ebaluaketen zenbatekoa.

Prozesuko adierazleak gainontzeko helburuetara amankomunak izango dira, beraz, nahiz eta gainontzeko helburuetatik sahiestu errepikakorra ez izateagatik, hau ez du esan nahi gainontzeko helburuetan ez direla aplikatu behar.

| | | | | | |
|-----------------------|---|------|------|------|------|
| Helburu Operatiboa | ZERBITZU OROKORRAK AHALDUNTZE | | | | |
| ZO.A.1 | Administrazio barruko prozesua areagotu eta handitzea, emakumeek beraien egoera eta posizioak hobetzeko. | | | | |
| | EKINTZAK | | | | |
| | (EMAN BEHARREKO PAUSUAK) | | | | |
| | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| | ZO.A.1.1. Parekidetasun irizpidea ezartzea, udaleko erabaki-organoetan eta batzordeetan, emakume eta gizonezkoen kopurua parekidea izateko (adibidez: barne kudeaketa batzordean). | | | | |
| | ZO.A.1.2. Udaletik martxan jartzen diren lan postu publikoen aukeraketa, promozio eta probisioetako prozesuetan, erabakitze mahai parekidea izatea. | | | | |
| | .ZO.A.1.3. Udalak sustatutako parte hartzeko prozesuetan emakumeen ikuspegia jasotzeko ahaleginak egitea, edo gutxienez parekidetasuna lortzea. | | | | |
| | ZO.A.1.4. Barne-promozioan eta enplegu publikoa sortzeko garaian, emakumeek edo gizonek ordezkari oso apala daukaten lan-kategoria eta lanbideetan, ordezkari orekatzeko neurriak aztertzea. Emakumeentzako egon daitezkeen oztopoak aztertzea. | | | | |
| ESPERO DIREN EMAITZAK | Udaletxe barruko prozesu parte hartzaileetan, parte hartze parekide bat izateko irizpideak ezartzea. | | | | |
| | Erabakitze tribunaletan eraketa parekidea izatea. | | | | |
| ARDURADUNA | Idazkaria eta kontuhartzailea | | | | |

Emitzen adierazleak:

- Parekidetasun irizpideen eboluzioa.
- Aukeraketa edo erabakitze tribunalen eraketen eboluzioa.
- Segurtasun eta pertsonaleko komiteen eraketen eboluzioa.

Helburu
Operatiboa

ZERBITZU ROKORRAK | BATERAGARRITASUN ARLOA

ZO.B.1

Bizi pertsonal, laboral eta familiarra bateratzeko, udaleko antolakuntzan aldaketak erraztuko dituzten tresnak martxan jarri eta erraztu.

EKINTZAK

(EMAN BEHARREKO PAUSUAK)

2011 2012 2013 2014

ZO.B.1.1. Departamenduetatik martxan jartzen diren eta finantziatzen diren programa eta ekintzetan bateragarritasun zerbitzuak martxan jartzeko laguntzak ezartzea.

ZO.B.1.2. Aitatasun eta amatasun baimenak hartzen dituzten pertsonak eta menpeko pertsonak beraien ardurapean dituzten pertsonak ere, beraien lan postuetara bueltatzeko neurriak bermatzea.

ZO.B.1.3. Menpeko pertsonak beren kargura dituzten pertsonen lan ordutegia, laguntzen dispozizioa ... moldaketak eta egokitzapenak ahalbidetzen dituzten berdintasun politikak ezagutarazi.

ZO.B.1.4. Gizonezkoak beraien kargura dituzten menpekotasun egoeran dauden pertsonaz arduratzeko dituzten eskubide eta lizentziak erabiltzera animatzea.

ZO.B.1.5. Udalean eta Udalaren menpeko erakundeetan lana eta bizi pertsonala uztartzeko eta familiako eta etxe ardurak partekatzeko dauden aukerak aztertzea; eta bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna bermatzeko, neurri eta irizpide gehigarriak zehaztea eta laneko hitzarmenean jasotzea (emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea beteaz).

ZO.B.1.6. Erakunde barruan lan ordutegi malgua ezartzeko aukera honen analisi bat egiteko proposamen bat garatzea. Bertan genero ikuspegia kontuan hartuz.

ZO.B.1.7. Lan denboraren berantolakuntza, malgutasuna, eta bateragarritasuna bultzatzeko laguntza eta neurri buruzko informazioa zabaltzea.



| | |
|-----------------------------|--|
| ESPERO DIREN EMAITZAK | Menpeko pertsonak bere kargura dituzten pertsonen, lan ordutegi eta beharrak egokitzea. Menpeko pertsonak beren kargura dituzten gizonak sentsibilizatuak izatea (baimenak, lizentziak...) dituzteen eskubideen erabilera egiteko. Informazioa zabaltzea. Aitatasun eta amatasun lizentziak hartzen dituzten pertsonak lanera inkorporatzea bermatzea. Familia arrazoiengatik baimena eta lizentzia erregimena handitzea. |
|-----------------------------|--|

| | |
|-------------|-------------------------------|
| ARDURADUNAK | Idazkaria eta kontuhartzailea |
|-------------|-------------------------------|

Helburu operatiboa ZERBITZU OROKORRAK | BIOLENTZIA ARDATZA

ZO.BI.1 Udaleko Berdintasun sailarekin elkar lanean aritzea, genero biolentzia pairatzen duten eta biktima diren emakumeen arreta hobetzeko.

EKINTZAK

(EMAN BEHARREKO PAUSUAK)

2011 2012 2013 2014

ZO.BI.1.1: Genero biolentzia pairatzen duten, emakumeen arreta hobetzeko udaleko berdintasun arloarekin elkar lana garatzea, biolentzia protokolo baten garapen, ezartzea eta jarraipena bermatzeko.

ZO.BI.1.2: Inplikaturiko agente ezberdinekin koordinazio jarrai eta orekatu bat mantentzea.

ZO.BI.1.3: Protokoloan inplikaturik dauden langilegoari zuzenduriko, genero biolentziari buruzko formakuntza saioak garatzea.

ZO.BI.1.4: Berdintasun arloarekin elkar lanean, akoso sexistak hartzen dituen forma, erreproduzitzen diren egoera, eta biktima eta erakundearentzat izan ditzazkeen ondorioak aztertzea.

ESPERO DIREN EMAITZAK Biolentzia protokoloa eratua
 Protokoloan inplikaturik dauden agente ezberdinekin kolaborazio sistematikoa
 Formakuntza planak
 Akoso sexistak hartzen dituen formen gaineko analisisa

Emaizten adierazlea:
 Koordinazioaren eboluzioa.
 Protokoloaren jarraipena egiteko komisio teknikoaren eboluzioa.
 Akoso sexual eta sexisten debekua ezartzen duen deklarazio publikoaren eboluzioa.
 Formakuntza saioen proposamenen eboluzioa.
 Akoso sexistak hartzen dituen formei buruzko eboluzioa.
 Barne protokoloaren eboluzioa.

BERDINTASUN ARLOA

Sarrera

Indarguneak:

- ✓ Berdintasun arloan datuak sexuaren arabera banatzen dituzte
- ✓ Elkarte desberdinei eskainitako diru-laguntzetan berdintasun klausulak sartzen dituzte.
- ✓ Berdintasun arloak (Berdinsarea) udalen arteko plataformako koordinazioan parte hartzen du, udal berdintasun politiken arloan.
- ✓ Berdintasunari lotutako sentsibilizazio ekintzak antolatzen dituzte.
- ✓ "Sexuen arteko Heziketa Integraleko Proiektua" eskaintzen dute
- ✓ Berdintasun kontseilua dute.
- ✓ Antolatzen diren ekintzetan emakumeen parte-hartzea ziurtatzeko ordutegiak kontutan hartzen dituzte.

Hobetzeko arloak :

- ✓ Berdintasun plana gauzatzea eta implementatzea.
- ✓ Emakumeen aurkako biktimen arretarako protokoloa egitea.
- ✓ Genero indarkeriaren eta berdintasun gaiaren formakuntza ematea
- ✓ Herritarrei genero indarkeriaren inguruan sentsibilizatzea.

Ardatzak, helburuak eta estratejiak

1. ARDATZA

MAINSTREAMING-A

Helburu orokorra

B.M.1 Berdintasun arloko diagnosi, planifikazio, eskuhartze eta ebaluaketetan Genero ikuspegia txertatu.

Helburu operatiboak

- ☑ B.M.1.1 Arloan egiten diren azterketa eta estatistikei genero ikuspegia txertatzea .
- ☑ B.M.1.2. Berdintasun gaitan trebatzeko, pertsonal politiko eta teknikoak baliabideez hornitzea.
- ☑ B.M.1.3. Genero ikuspegiaren txertatzea instituzionaletzea.

Helburu orokorra

B.M.2 Berdintasun politiketan, Azkoitiko biztanleriaren ezagutza eta inplikazio maila handitu eta areagotu.

- ☑ B.M.2. Berdintasun politiketan Azkoitiko herritarren ezagutza eta inplikazio maila areagotu.

BERDINTASUN ARLOA

Helburuak eta ardatzak

2. ARDATZA AHALDUNTZEA

Helburu orokorra B.A.1

Emakumeek politika publikoen definizioan, jarraipenean eta eboluzioan parte hartu ahal izateko barne prozesuak areagotzea eta sendotzea.

Helburu orokorra B.A.2

Emakume elkarte eta berdintasuna bultzatzen duten elkarteen sarea sendotzea eta bultzatzea.

3. ARDATZA BATERAGARRITASUNA

Helburu orokorra B.B.1

Antolakuntza sozialean aldaketak erraztuko dituen aukerak sortzea. Emakume eta gizonen bateragarritasuna eta bizi pertsonal, familiar eta laboralaren erantzunkidetasuna errazteko.

Helburu orokorra B.B.2

Bateragarritasuna barneratua duen gizarte eredu baten alde apostu egiteko, gizarteko ezagutza, inplikazio eta parte hartze maila sustatzea.

4. ARDATZA BIOLENTZIA

Helburu orokorra B.BI.1

Emakumeen aurkako biolentziaren kontra eskumena duten erakunde guztien arteko koordinazioa hobetzea.

Helburu orokorra B.BI.2

Emakumeen aurkako biolentziarekin amaitzeko sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea.

Helburu orokorra B.BI.3

Genero biolentziaren biktimak diren emakumeei arreta zerbitzu integral bat eskaintzea (pisu babestuak barne), ahalduntze ikuspuntu batetik beti ere.

| | | | | |
|-----------------------|--|------|------|-----------|
| Helburu Operatiboa | BERDINTASUN ARLOA MAINSTREAMING ARDATZA | | | |
| B.M.1.1 | Arloan egiten diren azterketa eta estatistikei genero ikuspegia txertatzea | | | |
| | EKINTZAK (EMAN BEHARREKO PAUSUAK) | | | |
| | | 2011 | 2012 | 2013 2014 |
| | <p>B.M.1.1.1 Berdintasun arloak gestionatzen duen informazioaren trataera, difusio eta biltzea. Beti ere genero interes eta behar praktikoak identifikatu ahal izateko.</p> <p>B.M.1.1.2. Planaren helburuak betetzeko asmoarekin, departamendu barruan interesgarriak diren irizpideak identifikatu eta sartzeari pixkanaka (Famili ardurak, denboraren erabilera ...).</p> <p>B.M.1.1.3. Informazioa jasotzeko fitxetan irizpide hauek txertatzen joan.</p> | | | |
| ESPERO DIREN EMAITZAK | Berdintasun arloak bere dokumentu, proiektu, ebaluazio, programa ...) erabiltzen dituen genero irizpideen batera txertatu eta berriak proposatu. | | | |
| ARDURADUNA | Berdintasun teknikaria | | | |
| B.M.1.2 | Berdintasun gaietan trebatzeko, pertsonal politiko eta teknikoari errekurtsoez ornitu. | | | |
| | EKINTZAK (EMAN BEHARREKO PAUSUAK) | | | |
| | | 2011 | 2012 | 2013 2014 |
| | <p>B.M.1.2.1. Berdintasun gaietan, udaleko departamendu eta udal zerbitzuetan dauden beharrei aurre egiteko, beharrezko baliabideak erraztea (aholkularitza, formazioa..)</p> <p>B.M.1.2.2. Departamendu ezberdin eta udal zerbitzuen artean berdintasun gaietako zerbitzu eta baliabideei buruzko informazioa zabaldu eta sistematizatzea.</p> <p>B.M.1.2.3. Berdintasun gaietan pertsonal politiko eta teknikoari emango zaien formakuntza diseinatzea.</p> | | | |

ESPERO Erraztu diren berdintasun inguruko baliabideak
DIREN Berdintasunaren inguruko formazio plana
EMAITZAK

ARDURADUNA Berdintasun teknikaria

B.M.1.3 Genero ikuspegiaren integrazioa instituzionalizatzea

EKINTZAK

(EMAN BEHARREKO PAUSUAK)

2011 2012 2013 2014

B.M.1.3.1. Plana martxan dagoen urte bakoitzean, gobernu batzordean aurkeztu garatu behar diren ekintzak, bertan onartzeko.

B.M.1.3.2. Ekintza/jarduera hauei zuzenduriko baliabideak (ekonomiko eta denborazkoak) identifikatu.

B.M.1.3.3. Berdintasun gaietarako egitura eta baliabideak finkatu:

- Planaren zeharkako gestioa errazteko koordinazio bat mantenduko duten egitura iraunkor eta zehatzak sortu (talde eragilea, departamenduen arteko batzordea, herritarren parte hartzea).
- Berdintasun saila aurrekontu egokiaz hornitu.

B.M.1.3.4. Berdintasun planaren zabalkunderako lanak burutzea:

- Udaleko web orriari I. Berdintasun plana eseki.
- I. Planaren aurkezpen publiko bat egin.
- I. Planaren kopiak banatu udaleko zerbitzu eta pertsonal guztiari.
- I. Planaren kopiak banatu herriko elkarte eta leku publikoetan.
- I. Planaren jasotzen diren oinarriko kontzeptuekin orri edo diptiko bat egin, eta hau herrian buzoneatu.

B.M.1.3.5. Berdintasun gaiak lantzen dituzten udalaz gaineko erakundeetan (Berdinsarea, Gipuzkoako Foru Aldundiko berdintasunaren unitatearekin, Emakunde...) parte hartzea eta harremanak mantentzen jarraitu.



EKINTZAK

(EMAN BEHARREKO PAUSUAK)

2011 2012 2013 2014

B.M.1.3.6. Udaleko departamendu ezberdinekin elkar lanean aritu, planaren urteko ekintza eta ebaluaketan jarraipena egiteko.

B.M.1.3.7. Planaren urteko ebaluaketarekiko, planaren inplementazio egoki bat egiteko hobekuntza neurriak ezarri.

B.M.1.3.8. Diru laguntzak erregulatzen dituzten normatibek harira, eta berauek onartzen duten kontratazioetako irizpideetan, berdintasunaren irizpidea txertatzea, hala nola, aurkezturiko eskaintza, proiektu eta diru laguntza ematen den ekintzetan.

B.M.1.3.9. Gainontzeko departamendu, zerbitzu eta eragile sozialekin koordinazio lanak burutu, genero ikuspegia ezartzeko aholkularitza eman.

B.M.1.3.10. Udaleko departamendu, zerbitzu eta eragile sozialei, bai irudi eta baita idatzietan ere, hizkuntza ez sexista baten erabilera egokia egiteko gidak edota orientazioak eman.

B.M.1.3.11. Genero ikuspegi batetik, diru laguntza, kontratazio eta aurrekontuen gaineko ordenantza batek izango lituzkeen biabilitate eta onurak aztertu.

B.M.1.3.12. Kontuhartzaitza departamenduarekin batera, genero ikuspegia duten aurrekontu baten aukerak ezagutu eta aztertu.



ESPERO Urteko plan operatiboak
 DIREN Plan operatiboaren memoria eta ebaluaketak
 EMAITZAK

ARDURADUNA Berdintasun teknikaria

B.M.2

Berdintasun politketan Azkoitiko herritarren ezagutza eta inplikazio maila areagotu.

EKINTZAK

(EMAN BEHARREKO PAUSUAK)

2011 2012 2013 2014

B.M.2.1. Berdintasun arloak burutzen dituen ekintzak ezagutzera eman, komunikazio kanpainen bidez. Komunikabideetan berdintasunarekin loturiko gaiak agertzea indartuz (eztabaida, aldizkari, prentsako berrietan, herri mailako irratietan,...)

B.M.2.2. Arlotik martxan jartzen diren ekintzak aurrera eramateko izan diren kanpoko profesionalekin datu base bat sortzea. Eta baita herri mailan egon daitezkeenekin ere (adz. Ipuinkontalariak, herriko emakume margolariak...).

B.M.2.3. Herritarrei zuzenduriko sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea, hala nola, martxoak 8 (emakumeen nazioarteko eguna), azaroak 25 (genero biolentziaren aurkako eguna), ekainak 28 (lesbiana eta gaien eskubideen nazioarteko eguna).

B.M.2.4. Herriko gizonentzat sentsibilizazio eta formazio kanpainak martxan jarri: maskulinitatei buruz, ezberdintasunei buruz...

ESPERO
DIREN
EMAITZAK

Berdintasun politiken inguruko informazioa Azkoitiko herritar guztiei zabaltzea.

ARDURADUNA Berdintasun teknikaria.

Emaitzen Adierazleak:

Helburua B.M.1

Adierazleen eboluzioa

Pertsonal tekniko eta politikoak eginiko formakuntzaren eboluzioa, formatutako pertsona kopurua eta (pertsonako) erabilitako ordu kopurua

Erakundearen antolakuntzan genero ikuspegia txertatzearen eboluzioa.

Planaren zeharkako gestioaren eta estruktura gestioen parte hartzeen koordinazioaren eboluzioa.

Erakundearen hizkuntza ez sexistaren erabileraren eboluzioa.

Genero ikuspuntu batetik eginiko, aurrekontu, kontratazio eta dirulaguntzen gaineko ordenantzen garapena.

Helburua B.M.2.

Berdintasun politikak aurrera eramateko martxan jarri diren eta disenatu diren komunikazio planen garapena.

Berdintasunerako ezarri diren neurriei buruz herritarrek duten ezagutza maila.

Berdintasun politiken arduradunari, herritarrek egin dizkieten kontsulta kopurua eta hauen eboluzioa.

Egin diren ekintza eta jardueretikiko satisfazio maila.

Prozesuko Adierazleak:

Gainontzeko deparatamenduekin mantendu diren koordinazio bilera kopurua.

Planeko aurrera eraman diren akzio kopurua.

Martxan jarri gabeko akzioen kopurua (Planteaturiko kronogramaren arabera).

Martxan jarri diren ekintza zuzengarrien kopurua .

Martxan jarri diren prebentzio ekintzen kopurua .

Ebaluaketa kopurua.

Prozesuko adierazleak gainontzeko helburuetara amankomunak izango dira, beraz, nahiz eta gainontzeko helburuetatik sahiestu errepikakorra ez izateagatik, hau ez du esan nahi gainontzeko helburuetan ez direla aplikatu behar.

| | |
|--------------------|--|
| Helburu operatiboa | BERDINTASUN ARLOA AHALDUNTZE ARDATZA |
|--------------------|--|

| | |
|-------|--|
| B.A.1 | Emakumeek politika publikoen definizioan, jarraipenean eta eboluzioan parte hartu ahal izateko barne prozesuak areagotzea eta sendotzea. |
|-------|--|

EKINTZAK

(EMAN BEHARREKO PAUSUAK)

2011 2012 2013 2014

B.A.1.1. Udaletxeko organu parte hartzaileetan genero ikuspegia txertatzea bultzatu.

B.A.1.2. Banakako emakume eta emakume elkarten erregistro bat sortu, prozesu parte hartzaileak martxan jartzen dituzten departamendu guztiekin erregistro hau partekatzeko.

B.A.1.3. Administrazioan emakumeen parte hartzea bultzatzeko bideak ezarri.

B.A.1.4. Dituzten espazio parte hartzaileetan emakumeen parte hartze eta presentzia handituko dituen sentsibilizazio kanpainak garatu.

B.A.1.5. Udalak sustatzen dituen prozesu parte hartzaileetan emakumeen parte hartzea bermatu, gutxienez % 40ko portzentaiari.



ESPERO DIREN
EMAITZAK

Udaletxeko organu parte hartzaileetan genero ikuspegia barneratu.
Parte hartze bideak ezarri.
Udalak martxan jarritako prozesu parte hartzaileetan emakumeen presentzia %40a bermatu.

ARDURADUNA

Berdintasun teknikaria.

B.A.2 Emakume elkarte eta berdintasuna bultzatzen duten elkarten sarea sendotzea eta bultzatzea.

EKINTZAK

(EMAN BEHARREKO PAUSUAK)

2011 2012 2013 2014

B.A.2.1. Berdintasun gaiak jorratuko dituen tokiko kontseilua (berdintasun kontseilua) indartu, emakumeen parte-hartzea sustatuz eta hauen iritziak kontutan hartuz udal politika publikoetan.

B.A.2.2. Berdintasun teknikari eta elkarte mugimenduaren arteko erlazio eta komunikazio bide iraunkorrak ezarri, ezagutza partekatzeko eta elkarten mugimendua indartzea.

B.A.2.3. Herriko neska gazteek, genero ikuspegi batetik gizartearen ikuspegi kritiko bat izan dezaten bultzatu (Adz. Legazpiko esperientzia adierazgarria izan daiteke).

B.A.2.4.Emakume elkarte ezberdinen arteko sareak sortzea bultzatu, eta baita herriko beste elkarteekin ere.

B.A.2.5.Berdintasunaren alde lanean diharduten edo jardun nahi duten elkarteei baliabide informatikoak erraztu (blogak, sare sozialak, udal web orrian atal bat...).

B.A.2.6. Herriko elkarteei genero ikuspegia txertatzeko asistentzia teknikoa eta formakuntza ematea (dirulaguntzetan irizpide horiek sartzearekin batera egiteko).

B.A.2.7. Emakumeen ahalduntzea sustatzera bideraturiko programa bat diseinatu eta martxan jarri (Ahalduntze-eskolen antzera) ikastaro, hitzaldi, erakusketa, etabarrak antolatuz.



ESPERO Elkarte mugimenduarekin erlazio eta komunikazio jarraia mantendu
 DIREN Eratutako emakumeen elkarteak
 EMAITZAK Erraztutako baliabide informatikoak

Herriko elkarteei zuzendutako formakuntza plana.
 Berdintasun gaietan oinarrituriko programa eta ekintzak garatzeko, herriko elkarteei egitura, baliabide eta tresnak ematea.
 Azkoitiko emakumeen ahalduntzea bultzatzea.

ARDURADUNA Berdintasun teknikaria

Emitzen adierazleak:

Helburu operatiboa B.A.1

- Instituzioan ireki diren prozesu parte hartzaileak.
- Prozesu parte hartzaile hauek azaldu den emakume kopurua %etan.
- Emakumeek eginiko ekarpen eta alegazioen kopurua.
- Ekarpen hauek kontutan izan diren eta baztertuak izan direnen kopurua.

Helburu operatiboa B.A.2

- Berdintasun ikuspegia txertatu duten elkarten kopurua eta garapena, landutako proiektuen (garapenen) bidez, planifikazioen egitura,...
- Elkarteetan parte hartu duten emakumeen kopurua, kopuru guztiaren aurrean.
- Azkoitian eskainitako, ikastaro, hitzaldi, tailer, ... kopurua.

| | | | | | |
|--|--|--|--|--|--|
| Helburu operatiboa | BERDINTASUN ARLOA BATERAGARRITASUN ARDATZA | | | | |
| B.B.1 | Antolakuntza sozialean aldaketak erraztuko dituen aukerak sortzea. Emakume eta gizonen bateragarritasuna eta bizi pertsonal, familiar eta laboralaren erantzukidetasuna errazteko. | | | | |
| <p>EKINTZAK (EMAN BEHARREKO PASUSUAK)</p> | | | | | |
| <p style="text-align: right;">2011 2012 2013 2014</p> | | | | | |
| <p>B.B.1.1. Azkoitiko biztanleei bateragarritasun gaiei buruzko ekintza informatzaileak zuzendu.</p> <p>B.B.1.2. Udal zerbitzu eta arloetan bateragarritasun neurrien egoera ezagutzeko, bilerak burutu eta hobetze aldera neurriak proposatu.</p> <p>B.B.1.3. Herrian, denboraren erabilera ematen diren ezberdintasunen gaineko gogoeta bultzatzeko espazioak sortu (denbora soziala, kolektiboak, lan ordutegiak, ...) bateragarritasuna eta erantzukidetasuna oinarritzko elementu bezala hartuz.</p> <p>B.B.1.4. Bateragarritasun neurriak ezartzen joatearen biabilitatea aztertu. Zaintza lanetan diharduten pertsonen ordutegi eta disponibilitatea aztertu, emakumearen sailetik bideratzen eta antolatzen diren ekintza eta programetan.</p> | | | | | |
| ESPERO DIREN EMAITZAK | <p>Berdintasun gaietan aurrera eramán diren akzio informatzaileak.</p> <p>Aurrera eramán diren bateragarritasun neurriei buruzko proposamenak.</p> <p>Gogoetarako sortu diren espazioak.</p> | | | | |
| ARDURADUNA | Berdintasun teknikaria | | | | |

| | | | | | |
|-----------------------------|--|--|--|--|---------------------|
| B.B.2 | Bateragarritasuna barneratua duen gizarte eredu baten alde apostu egiteko, gizarteko ezagutza, inplikazio eta parte hartze maila sustatzea. | | | | |
| | EKINTZAK (EMAN BEHARREKO PAUSUAK) | | | | 2011 2012 2013 2014 |
| | B.B.2.1. Emakumeei zuzenduriko formakuntza eta sentsibilizazio kurtsoak bideratu bizi familiar eta profesionalaz haratago garapen pertsonal-bitala edukitzearen garrantzia azaltzeko. | | | | |
| | B.B.2.2. Foro, saio edota lan talde berriak sortu, bateragarritasuna barneratua duen gizarte eredu berri baten inguruan aritu eta moduak aztertzeko. | | | | |
| | B.B.2.3. Haurrak edota menpekotasun egoeran dagoen pertsona batekin bizi diren gizonei zuzenduriko formakuntza eta sentsibilizazio kurtsoak bideratu bizi familiar eta profesionalaz haratago garapen pertsonal-bitala edukitzearen garrantzia azaltzeko. | | | | |
| ESPERO DIREN EMAITZAK | Bizi familiar eta profesional batez haratago bizi pertsonal garatu bat edukitzeak duen garrantziaz sentsibilizatutako emakumeak izatea. Antolakuntza sozial eta bateragarritasunari buruzko eztabaidak martxan jartzea. Bateragarritasunaren inguruan garatutako kanpaina eta tailerrak. | | | | |
| ARDURADUNAK | Berdintasun teknikaria. | | | | |



Emitzen adierazleak:
Helburu operatiboa B.B.1
 Antolakuntza sozialean aldaketak emateko martxan jarritako tresna kopurua.
 Garatutako kurtso/ programa kopurua.
 Formatutako pertsona kopurua.
 Bateragarritasunerako laguntza zerbitzuen ezarpena egiteko bideragarritasunaren ebaluaketaren eboluzioa.

Helburu operatiboa B.B.2
 Antzemandako aldaketa sozialen eboluzioa (Bateragarritasun atala, pertzepzioa, ezagutza,...).
 Helburua betetzera zuzendutako programa/baliabide kopurua eta eboluzioa.

| | | | | | |
|-----------------------------|--|------|------|------|------|
| Helburu operatiboa | BERDINTASUN ARLOA BIOLENTZIA ARDATZA | | | | |
| B.BI.1 | Emakumeen aurkako biolentziaren kontra eskumena duten erakunde guztien arteko koordinazioa hobetzea. | | | | |
| | EKINTZAK | | | | |
| | (EMAN BEHARREKO PAUSUAK) | | | | |
| | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| | B.BI.1.1. Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko tokiko protokoloa garatzea. | | | | |
| | B.BI.1.2. Genero biolentziaren biktima diren emakumeen arretarako udaleko protokoloaren jarraipenerako batzorde teknikoa sortzen eta bultzatzen parte hartu. | | | | |
| | B.BI.1.3. Inplikaturiko agente ezberdinekin koordinazio jarraia eta orekatua mantentzea. | | | | |
| | B.BI.1.4. Protokoloan inplikaturik dauden langileei zuzenduriko genero biolentziari buruzko formakuntza saioak garatzea. | | | | |
| | B.BI.1.5. "Berdinsarea: biolentziaren aurkako eta berdintasunaren aldeko udalerrien sarean" parte hartzea. | | | | |
| | B.BI.1.6. Protokoloaren jarraipena eta ebaluaketa egitea. | | | | |
| ESPERO DIREN EMAITZAK | Koordinazio egiturak sortzea. Formazioa plana. Berdinsarean parte hartzea. Ebaluatutako protokoloa | | | | |
| ARDURADUNAK | Berdintasun Teknikaria. | | | | |

| B.BI.2 | Emakumeen aurkako biolentziarekin amaitzeko sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea. | | | | |
|---|---|------|------|------|------|
| EKINTZAK (EMAN BEHARREKO PAUSUAK) | | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| B.BI.2.1. Emakumeei zuzenduriko formakuntza ekintzak garatu. Hauen helburua emakumeak biolentzia zikloei buruz informatuta egon eta biktima diren kasuetan berauen burua errekonozitzea. | | | | | |
| B.BI.2.2. Gizonei (heldu, gazte, ...) zuzenduriko formazio ekintzak garatu, maskulinitatea eta biolentzia gaien erlazioa landu eta erlazioen eredu berriak sustatzeko. | | | | | |
| B.BI.2.3. Herritarrentzat sentsibilizazio kanpainak garatu (duten arduraren inguruan, biolentzia zikloen eta biolentzia pairatzen dutenentzako baliabideen inguruan...), garaiz antzemateak duen garrantzia indartuz. | | | | | |
| B.BI.2.4. Emakume eta adin txikikoengan tratu txarrak ba direla antzematen den ustezko kasuetan informazio eta sentsibilizazio ekimenak herrian garatu. | | | | | |
| B.BI.2.5. Emakumeen aurkako biolentziaren arreta eta prebentziorako udal gida eratu. | | | | | |
| B.BI.2.6. Gida, Udalean eta laguntza emateko prest dauden establezimenduetan (taberna, denda, etab.) zabaldu. | | | | | |
| B.BI.2.7. Emakumeei jasaten dituzten eraso sexual eta etxeko tratu txarren inguruko salaketa publikoa aurrera eramanez komunikazio bide ezberdinetan. | | | | | |
| B.BI.2.8. Azkoitiko herriko festetan hitzezko eraso eta eraso sexualak ekiditeko kanpainak martxan jarri. | | | | | |
| B.BI.2.9. Azkoitiko herritarrei, bikote erlazio positiboaren eredu buruzko sentsibilizazio tailerrak eskaini. | | | | | |
| ESPERO DIREN EMAITZAK | Burutu diren sentsibilizazio tailer eta kanpainak. Emakume eta gizonei zuzenduriko burututako formakuntza ekintzak. Banatutako gidak. Jarritako salaketak. | | | | |

